

# BESTELAKO XEDAPENAK

## HEZKUNTZA SAILA

### 1852

*AGINDUA, 2023ko apirilaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deitzen baitira Irale programaren 2023ko udako eta 2023-2024 ikasturteko ikastaroak eta ezartzen baita ikastarook egiteko plazak esleitzeko prozedura.*

1994ko urtarrilaren 28ko Aginduaren bidez (1994-02-11ko EHAA) berritu zuen Hezkuntza Sailak IRALE programa osoa, eta antolamendu-arau berriak ezarri zizkion. Agindu horrek araudi nagusia eskaini dio Irale programaren eguneroko jardunari, eta horren arabera antolatzen dira, gaur egun ere, programaren hainbat atal eta prozedura.

Apurka-apurka, premia berriak agertu dira EAEko eskola-munduan. Ondorioz, Irale programaren 1994ko moldaera hura premia berri horietara egokitzuz joan da hainbat xehetasunetan. Aldaketa xumeak edo oso xumeak izan dira egokitze-lan horietariko asko. Aldaketa horiek eta beste hainbat ez dira bat-batean egin, apurka-apurka baizik, eta, normalean, egoera berriaren ezaugarriak eta haien arabera lehentasun nagusiak kasuan kasuko solaskideekin eztabaidatuz, zehaztuz eta adostuz.

Irale programaren urteetako ibilbide oparoari esker, euskal hezkuntzan aurrerapauso handiak eman dira euskararen ezagutzaren eta erabileraren normalizazioan. Hala ere, urteak joan urteak etorri, premia berriak sortu dira irakasleen hizkuntza-gaikuntzan izan den aldaketa tipologikoaren ondorioz, eta Iralek, laguntza zerbitzu den aldetik, ahalik eta ongien erantzun beharko die etorkizunean ere irakasleen berriazko premia berri horiei, orain arte egin duen bezalaxe.

2010eko uztailaren 6ko Dekretuak (2010-07-16ko EHAA) onartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa, eta, bertan jasotzen denez, oraindik badaude premiak euskararen eta euskarazko irakaskuntzan: besteak beste, hezkuntza-erronka berriei erantzuteko material egokiak sortzea, eta euskara irakatsi eta eskolak euskaraz ematen dituzten irakasleak didaktikan gaitzea.

Horri guztiari aurre egiteko, hezkuntza-arloan identifikatutako premietara moldatu da urte hauetan Irale programa, eta euskarazko irakaskuntzan kalitatezko euskara bermatzen duten alderdi didaktikoetan eta materialetan sakondu du.

Irale programa, prestakuntza-arloan eragile den aldetik, bete-betean lotzen zaio Heziberri 2020 proiektuaren Hezkuntza Sistema Hobetzeko Planaren lehenengo ildo estrategikoari: irakasleen etengabeko prestakuntzari, hain zuzen ere. Irale programaren eskaintza nagusia goi-mailako ikastaroak dira, bai eskola-orduz kanpokoak, bai eskola-ordu barnekoak. Nagusiki, ikastaro horiek izan dira programaren berrikuntza nagusia, eta, neurri batean, baliagarri izan daitezke ikastetxetan egiten diren berrikuntza-proiektuei eta bertako hezkuntza-eredu pedagogikoei erantzuteko. Beraz, Irale programaren helburuak, neurri handi batean, horretara bideratzen dira.

Era berean, Heziberri 2020 proiektuaren bigarren ildo estrategikoari jarraikiz, etengabeko prestakuntzak ez ditu azken xedetzat irakasle eta eskoletako langileak hartzen, ikasleak baizik, eta, alde horretatik, irakasleek konpromisoz eta arduraz jokatu behar dute, delako prestakuntza hori praktikan jarri eta aurretiaz ezarritako helburuak ikasturtez ikasturte betetzeko.

Hori guztia dela eta, hau

## XEDATZEN DUT:

## 1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da Irale programaren 2023ko udako eta 2023-2024 ikasturteko ikastaroen deialdia egitea, bai lanorduz kanpokoak, bai lanordu barnekoak, eta, ikastarook egiteko plazak lehia-araubidean esleitzeko prozedura ezartzea. Deialdi hau ikastaro horiek egin nahi dituzten unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxe pribatuetako langileentzat da.

## 2. artikulua.– Irale programaren 2023-2024 ikasturteko helburuak.

1.– Oraindik euskaldundu gabe dauden irakasleak euskalduntzea.

2.– Euskaldundutako irakasleen euskara-gaikuntza hobetzea.

3.– Euskarazko ikasmaterial berrien hizkuntza-kalitatea bermatzea.

4.– Curriculumaren euskal dimentsioa zabaltzea.

5.– Irakaskuntza-jardunean, euskarazko ahozko komunikazioa lantzea.

## I. KAPITULUA

## ESKAINITAKO IKASTAROAK ETA BALDINTZAK

## 3. artikulua.– Eskaintzen diren ikastaroak.

1.– Ikastaroak lanorduetan nahiz lanorduz kanpo eskaintzen dira (I. eranskina). Hau da ikastaro bakoitzeko plaza-kopurua:

a) Lanordu barneko ikastaroak (C1, 2.HE edo baliokidea dutenentzat):

R300 ikastaroa: 436 plaza.

R400 ikastaroa: 40 plaza.

R600 ikastaroa: 120 plaza.

R900 ikastaroa: 75 plaza.

R ikastaroren batean plaza hutsik geratuz gero, gainerako R ikastaroetarako esleitutako plazak emendatuko dituzte, betiere deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte eskatzaileek, taldeak osatzeko aukera baldin badago, dagoeneko osatutako taldeetan txertatu ahal badira, eta horretarako bidea nahiz baliabideak baldin badaude. Plazen emendatze hori lurralde historikoen artean ere gerta daiteke.

b) Lanordu barneko ikastaroak (1.HE eta 2.HE lortzeko):

U2 ikastaroa: 45 plaza.

U3 ikastaroa: 70 plaza.

3000 ikastaroa: 40 plaza.

4000 ikastaroa: 50 plaza.

5000 ikastaroa: 60 plaza.

c) Lanorduz kanpoko ikastaroak (1.HE eta 2.HE lortzeko):

A ikastaroak: 150 plaza.

E ikastaroak: 200 plaza.

Lanorduz kanpoko ikastaroetan, bete gabe geratzen diren plazek eskaera eskaintza baino handiagoa gertatu den lanorduz kanpoko ikastaroetako plazak emendatuko dituzte. Dena dela, 2023ko aurrekontuetan kreditu egokia eta nahikoa egotearen mende egongo da lanorduetatik kanpoko plaza-kopurua.

A eta E ikastaroak euskaltegi zein barnetegietan egin ahal izango dira, aurrez aurreko edota autoikaskuntzako modalitateetan. Barnetegien kasuan, Iralek klaseak bakarrik lagunduko ditu diruz, ez egonaldi-gastuak.

2.– I. eranskinean jasotzen da ikastaro bakoitza nori dagoen bideratuta.

3.– II. eranskinean jasotzen dira ikastaroak eta haien ezaugarriak.

4. artikulua.– Gehieneko ordutegi-liberazioko aldiak U2, U3, 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetan.

Kontuan hartu behar da irakasle batek kontsumituta daukan urteko kreditua kalkulatzeko aintzat hartzen direla bizitza osoan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko egin dituen liberaziodun ikastaro guztiak.

Lanorduetan eskainitako ikastaro hauetan (U2, U3, 3000, 4000 eta 5000) parte hartu ahal izateko, eskatzaileak ez ditu agortuta izango jarraian zehazten diren gehieneko ordutegi-liberazioko aldiak:

1.– Ikastetxe publikoetako irakasleek 3 urte izango dute guztira: horietatik gehienez 2 urte 1.HE lortzeko, eta gehienez 2 urte 2.HE lortzeko.

2.– Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratadun hezitzaileek 3 urte izango dute guztira, salbu HLEA badute.

a) Guztizko 3 urte horietatik, gehienez 2 urte 1.HE lortzeko, eta gehienez 2 urte HLEA edo 2.HE lortzeko.

b) HLEA izanez gero, gehienez urtebete izango dute 2.HE eskuratzeko.

3.– Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasle finkoek guztira 2 urte izango dute 2.HE eskuratzeko.

5. artikulua.– Gehieneko ordu-kreditua eskola-orduz kanpoko A eta E ikastaroetarako.

Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleek eta Hezkuntza Bereziko hezitzaileek 2.550 ordu izango dituzte guztira; horietatik, gehienez 1.700 ordu 1.HE lortzeko, eta gehienez 1.700 ordu 2.HE lortzeko.

6. artikulua.– Ikastaroak non emango diren.

1.– Toki hauetan emango dira lanordu barneko ikastaroak:

a) U2, U3, 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak HABEk izendatzen dituen ikasketa-elkarteetan emango dira.

b) R ikastaroak Iraleko irakastegietan emango dira.

2.– Toki hauetan emango dira lanorduz kanpoko ikastaroak:

A eta E ikastaroak HABEk izendatzen dituen ikasketa-elkarteetan emango dira.

7. artikulua.– Ikastaro amaierako azterketak.

Jarraian zehazten diren azterketak egin beharko dituzte ikastaro hauetan onartu diren pertsonak, ikastaroa amaitu eta gero:

1.– U2 eta 3000 ikastaroak amaituta, 1.HEko azterketa egin beharko dute.

2.– U3 eta 5000 ikastaroak amaituta, 2.HEko edo HLEAko azterketa egin beharko dute.

3.– 4000 ikastaroa amaituta, HLEAko azterketa egin beharko dute ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaileek.

8. artikulua.– A eta E ikastaroak, doakotasun-baldintzak, nahitaezko gutxienerako bertaratzea eta gutxienerako hori ez betetzearen ondorioak prezioa ordaintzean.

1.– Udako A eta E ikastaroetan, % 80koa da nahitaezko gutxienerako bertaratzea, eta, ikasturtean zehar egiten diren ikastaroetan, % 75ekoa.

2.– Nahitaezko gutxienerako bertaratzea betetzen bada, ikaslearentzat doan izango da ikastaroa egitea.

3.– Nahitaezko gutxienerako bertaratzea betetzen ez bada, ikastaroaren kostuaren % 50 ordaindu beharko du ikasleak. Ikasleari ordaintzea dagokion zatia ikasle horrek parte hartzen duen Irale programako hurrengo A edo E ikastaroan ordaindu beharko du.

## II. KAPITULUA

### ESKAINITAKO PLAZAK ESLEITZEKO PROZEDURA

9. artikulua.– Ikastaroen hartzaileak.

Deialdi honetan jasotzen diren baldintzak eta eskakizunak betez gero, orokorrak edo ikastaroari berariaz dagozkionak, talde hauen parte diren pertsonak eska ditzakete ikastaroak, zeinak I. eranskinean «X» batez zehazten baitira talde bakoitzarentzat:

1.– Ikastetxe publikoetako irakasleak eta Hezkuntza Bereziko hezitzaileak.

2.– Itunpeko ikastetxe pribatuetako irakasleak, Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaileak eta 0-3 bitarteko haurren irakasle edo hezitzaileak.

3.– Hezkuntza Saileko Hezkuntza Ikuskaritzako eta irakaskuntzaren laguntza-zerbitzuetako langileak.

4.– Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileak.

10. artikulua.– Parte hartzeko eskakizunak.

1.– Ikastaro horiek egin nahi dituenak, I. eranskinean ikastaro bakoitzerako adierazitako taldekoa izateaz gain, 2022-2023 ikasturtean, deialdi honetako eskabide-epea ireki baino lehen, gutxienez egun batez lan egindakoa izan behar du. Lan hori bat etorri beharko da deialdi honetan parte hartzen duen langileen taldeari esleitutako lanarekin.

2.– R ikastaroa lortu eta egin ahal izateko, aurrekoaz gain, eskakizun hauek ere bete beharko dira:

a) Kasuaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzaren, laguntza-zerbitzuaren edo Hezkuntza Ikuskaritzaren baimena izatea.

b) Hezkuntza Saileko bitarteko langileek eta aldi baterako lan-kontratudun langileek plaza lortu ahal izango dute, baldin eta ikasturte osoko lanpostu bat esleitzen bazaie 2020ko ekainaren 1eko Aginduak arautzen duen Ikasturtearen Hasierako Esleipen-Prozeduran (EHAA, 2020-06-10).

c) Ikastetxeetako langileek plaza lortu ahal izango dute baldin eta lanpostu horretan ordezkotza bermatzen bada.

d) Aurretik R ikastaro bera ez egin izana.

e) Deialdia argitaratzen denerako egiaztatua izatea 2.HE, C1 edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

Ikastaroan hasi aurretik egiaztatuko da b) eta c) baldintzak betetzen direla.

3.– U2, U3, 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egin ahal izateko, 1. puntuan adierazitakoez gain, honako hauek ere bete beharko dira:

a) Kasuaren arabera, ikastetxeko zuzendaritzaren, laguntza-zerbitzuaren edo Hezkuntza Ikuskaritzaren baimena izatea.

b) Hezkuntza Saileko bitarteko langileek eta aldi baterako lan-kontratudun langileek plaza lortu ahal izango dute, baldin eta ikasturte osoko lanpostu bat esleitzen bazaie 2020ko ekainaren 1eko Aginduak arautzen duen Ikasturtearen Hasierako Esleipen-Prozeduran (EHAA, 2020-06-10).

c) Ikastetxeetako langileek plaza lortu ahal izango dute baldin eta lanpostu horretan ordezkotza bermatzen bada.

d) 4. artikuluan ezarritako gehieneko ordutegi-liberazioko epeak ez gainditzea.

e) U2 ikastarorako, beharrezkoa izango da, gainera, III. eranskinean aipatutako sarrera-proba gainditzea.

f) U3 ikastarorako, beharrezkoa izango da deialdia argitaratzen denerako egiaztatua izatea 1.HE edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera. Nolanahi ere, U2 ikastaroa egiteko liberatua dagoenak U3 ikastarorako eskabidea egiteko aukera izango du (paperean, aplikazioan ezin izango baitu), nahiz eta eskabidea egiteko momentuan 1.HE egiaztatuta ez izan.

g) 3000 ikastarorako, beharrezkoa izango da III. eranskinean aipatutako sarrera-proba gainditzea.

h) 4000 ikastarorako, Hezkuntza Bereziko hezitzaileek deialdia argitaratzen den egunerako egiaztatua izan beharko dute 1.HE edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

i) 5000 ikastarorako, beharrezkoa izango da deialdia argitaratzen denerako egiaztatua izatea 1.HE edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozeduretarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbueste-egoera.

Ikastaroan hasi aurretik egiaztatuko da b) eta c) baldintzak betetzen direla.

4.– Lanorduz kanpo eskaintzen diren A eta E ikastaroak egiteko, 1. apartatuan zehaztuaz gain, beharrezkoa izango da 5. artikuluan ezarritako gehieneko orduak ez gainditzea.

## 11. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Eskabideak (VIII. eranskina) aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

2.– Eskabideak non eta nola aurkeztu:

a) Funtzionarioek:

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 14.2.e) artikulua arabera, eskabideak, eta horiekin aurkeztu beharreko dokumentazioa, soilik baliabide elektronikoak erabilia aurkeztuko dituzte, helbide honetan:

<https://www.hezigunea.euskadi.eus> > izapideak langileen sailarekin > irale ikastaroak

b) Itunpeko ikastetxe pribatuetako langileek:

Eskabideak, eta horiekin aurkeztu beharreko dokumentazioa, aurrez aurre aurkeztu ahalko dituzte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren lurralde-ordezkaritzetan zein Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluan zehaztutako erre-gistroetako edozeinetan; edo, baliabide elektronikoak erabilia, helbide honetan:

<https://www.hezigunea.euskadi.eus> > izapideak langileen sailarekin > irale ikastaroak

## 12. artikulua.– Eskabideez gain aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– R300 ikastaroa eskatzeko, eskatzaileek galdetegi bat bete beharko dute (IV. eranskina) eskabidea egiteko unean, adierazteko euskarazko komunikazio-kompetentziaren zer arlotan hobetu nahi duten.

2.– R400, R600 eta R900 ikastaroak eskatzeko:

a) Eskabideaz gain, ikastaroan garatu beharreko proiektuaren memoria labur bat aurkeztu beharko da Hezkuntza Ordezkaritzan, banaka edo taldean. Memoria labur horiek prestatu ahal izateko, Iralek horrexetarako diseinatutako gidak eskuratu ahal izango dira Hezkuntza Sailaren web-orrian: <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>.

Proiektuaren memoria aurkezteko azken eguna Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da.

R400, R600 eta R900 ikastaroetako proiektua egitean, beste egile batzuen testuak, irudiak eta beste erabili nahi izanez gero, ikasleak izango du dagozkion baimenak eskuratzeko ardura. Baimenak eskuratuta izan beharko ditu proiektuaren txostena aurkezten duenerako.

R400 ikastaroa eskatzen duenak konpromisoa hartzen du ikastaroan sortutako lana EIMARA bidaltzeko ikastaroa amaitu baino lehen, egokitasuna onesteko. Esteka honen bitartez bidali beharko du:

<https://www.euskadi.eus/eima-euskal-ikasalen-kalitatea/web01-a2heusk/es/>

b) R400, R600 eta R900 ikastaroetan eskatzaileak onartu ahal izateko, nahitaezkoa izango da haien ikastetxeak betetako dokumentu bat eranstea (V., VI. eta VII. eranskinak). Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro horiek lantzeak ikastetxearen beraren premiei erantzuten diela, eta ikastaroa bat datorrela ikastetxeko hezkuntza- edo hizkuntza-proiektuarekin.

### 13. artikulua.– Eskabideak zuzentzea.

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskabidean edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioan (halakorik aurkeztu bada) forma-akatsak edo omisioak atzemanaz gero, interesdunari jakinaraziko zaio gehienez 10 egun balioduneko epea duela akatsa zuzendu edo falta den agiria ekartzeko. Ohartaraziko zaio, halaber, hala egin ezean, eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako baldintzetan eman aurretik.

### 14. artikulua.– Plazak esleitzeko irizpideak.

1.– R ikastaroetako plazak esleitzean, arau hauei jarraituko zaie:

a) Inori ezingo zaio esleitu R ikastaro bat baino gehiago.

b) Hurrenkera honetan esleituko dira plazak: R900, R600, R400 eta, azkenik, R300.

c) Lehentasun-hurrenkera hau ezarriko da eskatzaileen artean: lehenenik, karrerako funtzionarioak zein langile finkoak, eta, bigarrenik, bitarteko funtzionarioak zein aldi baterako langileak.

d) Ikastaro bakoitzean, lehentasunezko irizpide hauen arabera egingo da esleipena, hurrenkera honetan:

Euskara-eskolak ematen dituztenak edo eskolak euskaraz ematen dituztenak.

Gaztelania-eskolak edo atzerriko hizkuntza batekoak ematen dituztenak.

R ikastaro gutxiago egin dituztenak.

Ondoren, hurrenkera honetan esleituko dira 2023an duten adinaren arabera: 56 urte edo gutxiago, 57 urte, 58 urte eta horrela hurrenez hurren, plazak agortu arte.

Lehenago 2.HE, C1 edo baliokidea, edo enplegu publikorako hautaketa- eta betetze-prozedurarako apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan aurreikusitako salbuste-egoera lortu izana lehenetsiko da.

e) R400 ikastaroan, aurreko d) hizkian adierazitako irizpideak baino lehen, jarraian adierazitako lehentasun-hurrenkera hau aplikatuko da ikastaroan garatuko den proiektuaren arloaren arabera:

Lanbide Heziketa.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, Hezkuntza Sailaren lehentasun-ildoen baitako «Euskara: gaitasuna eta erabilera» ataleko ekimen eta zereginekin lotutako materialak.

Batxilergoan eta DBHn, euskarazko material gutxi duten irakasgaiak.

Euskal kulturarekin lotura duten eskola-materialak.

Hezkuntzako web-orrian argitaratuko da lehentasunezko arloen zerrenda (<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara>):

Lanbide Heziketako lehentasunezko arloen zerrenda.

«Euskara: gaitasuna eta erabilera» ataleko lan-ildoen zerrenda.

Irakasgai eta arlo bakoitzean, memoriaren balorazioan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerrari jarraikiz esleituko dira plazak.

f) R600 eta R900 ikastaroen kasuan, lehentasun-irizpide hau ezarriko da: eskatzaileak ikasturte osoko plaza izatea 2023-2024 ikasturterako baimena eman zuen ikastetxean.

Lehentasuna emango zaie ikastetxeko edo mintegietako proiektuei, eta taldeak bultzatu edo babestutako proiektu bat garatzeari.

2.– U ikastaroetako plazak eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetakoak esleitzean, arau hauei jarraituko zaie:

Lehenik, aurreko ikasturtean U2 ikastaroa egin dutenei esleituko zaizkie U3 eta U2 ikastaroetako plazak.

3.– Eskabideak aurkeztu diren hurrenkeraren arabera esleituko dira gainerako ikastaroen plazak (A eta E), harik eta dauden plazak amaitu arte.

15. artikulua.– R400, R600 eta R900 ikastaroetarako memoriaren balorazioa.

1.– Aipatutako ikastaroetarako aurkeztu behar diren memoriak 0 eta 10 puntu artean baloratuko ditu 16. artikuluan jasotzen den balorazio-batzordeak. Baremazio-atal bakoitzean gehieneko puntuzkoaren erdia gutxienez eskuratu duten memoriak baino ez dira onartuko.

2.– Batzorde horrek irizpide eta baremo hauen arabera emango ditu puntuak ikastaro bakoitzean:

a) R400 ikastaroko memoria baloratzeko:

Hizkuntzaren gutxienezko kalitatea (zuzentasuna, egokitasuna...): 3 puntu.

Lanaren deskripzioaren zehaztasuna eta egingarritasuna: 4 puntu.

Proiektuaren aplikagarritasuna: irakaskuntza-sistemaren curriculumeko premiei bete-betean erantzuten dien ala ez, eta IKTen erabilera indartzen duen ala ez: 3 puntu.

b) R600 ikastaroko memoria baloratzeko:

Lanaren deskripzioaren zehaztasuna: 4 puntu.

Proiektuaren aplikagarritasuna eta ezartzeko modua: curriculumaren euskal dimentsioa irakaskuntza-arloan edota ikastetxean berariaz lantzen duen ala ez, eta IKTen erabilera indartzen duen ala ez: 4 puntu.

Hizkuntzaren gutxienezko kalitatea (zuzentasuna, egokitasuna...): 2 puntu.

c) R900 ikastaroko memoria baloratzeko:

Lanaren deskripzioaren zehaztasuna: 4 puntu.

Proiektuaren aplikagarritasuna eta ezartzeko modua: euskarazko ahozko adierazkortasuna eta elkarrekintza irakaskuntzan edota ikaskuntzan berariaz lantzen duen ala ez, eta IKTen erabilera indartzen duen ala ez: 4 puntu.

Hizkuntzaren gutxienezko kalitatea (zuzentasuna, egokitasuna...): 2 puntu.

16. artikulua.– Balorazio-batzordea.

Honela osatuko da R400, R600 eta R900 ikastaroetako memoriaren balorazio-batzordea:

– Batzordeburua: Amaia Agirre Pinedo Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaria edo haren ordezkaria.

– Joseba Ibarretxe Berritzegune Nagusiko koordinatzailea edo haren ordezkaria.

– Ordezkaritza bat Irakeren irakaskuntza-zentro bakoitzetik: Amaia Angulo, Dolaretxeko Iraletik; Maite Ruiz de Egiño, Artazugoikoko Iraletik; Amaia Artola, Donostiako Iraletik; Ane Sarasketa, Eibarko Iraletik, eta Josune Erauskin, Gasteizko Iraletik.

– Idazkaria: Izaskun Kuartango Euskara Zerbitzuko irale programaren arduraduna edo haren ordezkaria.

17. artikulua.– Prozeduran parte hartzeko eskabideak ez onartzeko ebazpena.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzak ebazpena emango du prozeduran onartu ez diren eskabideen zerrenda onatzen emateko; bertan adieraziko du, halaber, eskabidea zein ikastarotarako ez den onartu eta zein diren ez-onartzearen arrazoi zehatzak, eskakizunak ez betetzeak edo eskabidea behar bezala ez aurkezteak eraginda.

Epean aurkeztu diren eta eskabide onartu gabeen zerrendan agertzen ez diren eskabideak prozeduran onartu direla ulertuko da.

2.– Hezkuntza Sailaren web-orriaren (<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara/>) argitaratuko da prozeduran parte hartzeko onartu ez diren eskabideen zerrenda. Jarraian adierazitako ikastaroak egiteko datak ere bertan zehaztuko dira:

- a) A eta E ikastaroak egiteko.
- b) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko.
- c) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.
- d) Bitarteko funtzionarioek U ikastaroak eta R ikastaroko lehenengo txanda egiteko.
- e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroko bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.

3.– Prozeduran ez onartua izatearen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ez onartzeko ebazpenaren argitalpena jakinarazten den egunetik hasita.

18. artikulua.– Plazen behin-behineko esleipenen ebazpena.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkaritza bakoitzak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko plazen esleipenen behin-behineko zerrendak onatzen emateko.

Ebazpen horretan berriaz jasoko da bitarteko irakasleei plazak esleitu ahal izateko, ezinbestekoa izango dela ikasturte osorako izendapena lortzea.

2.– Hezkuntza Sailaren web-orriaren argitaratuko dira zerrendak (<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara/>). Zehazki, zerrenda hauek argitaratuko dira:

- a) A eta E ikastaroak egiteko.
- b) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko.
- c) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.
- d) Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako langileek U ikastaroak eta R ikastaroko lehenengo txanda egiteko.

e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroko bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.

3.– Ebazpen horren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek lau eguneko epean, argitaratzen denetik aurrera.

Idatziz aurkeztuko zaizkio erreklamazioak Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Lurralde Burutzari, posta elektronikoz nahiz ohiko postaz.

19. artikulua.– Behin-behinean esleitutako plazari uko egitea.

1.– Aurreko artikuluan zehaztutako 4 eguneko epean plazaren behin-behineko esleipena lortu dutenek uko egin diezaiokete plazari.

2.– Idatziz aurkeztuko zaio uko-egitea Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Lurralde Burutzari, posta elektronikoz nahiz ohiko postaz.

20. artikulua.– Plazen behin betiko esleipenen ebazpena eta erreserba-zerrenda.

1.– Hezkuntzako lurralde-ordezkarri bakoitzak ebazpena emango du ikastaro bakoitzeko plazen esleipenen behin betiko zerrendak ontzat emateko.

Ebazpen horretan berriaz jasoko da bitarteko irakasleei eta aldi baterako langileei plazak esleitu ahal izateko, ezinbestekoa izango dela ikasturte osorako izendapena lortzea eta deialdi honetan ikastaro bakoitzerako zehaztutako baldintzak betetzea.

2.– Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira zerrendak: (<https://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara/>). Zehazki, zerrenda hauek argitaratuko dira:

a) A eta E ikastaroak egiteko.

b) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek U eta R ikastaroak egiteko.

c) Karrerako funtzionarioek eta itunpeko ikastetxeetako irakasleek 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.

d) Bitarteko funtzionarioek eta aldi baterako langileek U ikastaroak eta R ikastaroko lehenengo txanda egiteko.

e) Bitarteko funtzionarioek R ikastaroko bigarren txanda eta 3000, 4000 eta 5000 ikastaroak egiteko.

3.– Ebazpen horrek barne hartuko du ikastaro bakoitzerako erreserba-zerrenden onarpena. Baldin eta, ikastaroa hasi baino lehen, plazaren esleipendun gertatu den pertsona batek baja ematen badu, erreserba-zerrendarekin esleituko da plaza hori.

4.– Behin betiko ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, argitaratzen denetik aurrera.

21. artikulua.– Gehieneko liberazio-aldiari eragiten dion ikastaroari uko egitea mediku-bajagatik.

1.– Zenbait ikastarotan, pertsonak ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiak ez gainditzearen mende dago parte-hartzea; bada, kasu horietan, mediku-bajagatik ikastaroari uko eginez gero ikastaroa gauzatzen ari den datetan, ikastaroaren esleipena ez da zenbatuko 6. artikuluan aipatzen den ordutegiaren gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako.

2.– Aurreko 1. apartatuan xedatutakoa aplikatu ahal izateko, arau hauek bete beharko dira:

a) Interesdunak mediku-bajagatiko uko-egite eskabidea aurkeztea bere lantokiari dagokion lurralde-ordezkaritzako Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Unitatean. Laneko bajaren mediku-agiriak erantsiko zaizkio eskabide horri.

b) Baja gertatzen den ikasturtean aurkeztu beharko da eskabidea, eta, betiere, ikastaroa amaitzeko zehaztutako eguna baino lehen edo, 1.HE eta 2.HE ikastaroen kasuan, azterketetarako zehaztutako eguna baino lehen.

3.– Ikastaroa esleitzeak ez dezan eraginik izan gehieneko liberazio-aldiaren zenbaketan, eskakizun hauek ere bete beharko dira:

a) Irale programaren barnean, behin baino ez zaio onartuko pertsona bakoitzari ikastaroa ez zenbatzea gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako.

b) Osasun Ikuskaritzak ontzat eman behar du mediku-baja.

c) U2 edo U3 ikastaroetan, baja-aldia 60 eta 109 eskola-egun bitartekoa bada, soilik eskatu ahal izango da urte erdiko liberazio-aldia ez zenbatzea. Baja-aldia gutxienez 110 eskola-egunekoa bada, onartuko zaio ikastaro osoa ez zenbatzea, eta aukera emango zaio ikastaroa hurrengo deialdian egiteko.

d) 3000, 4000 eta 5000 ikastaroetan, baja-aldia gutxienez 30 eskola-egunekoa izan beharko da ikastaroa ez zenbatzea onartzeko.

e) R ikastaroetan, baja-aldiak eskola-egunen % 40 gutxienez hartu beharko du ikastaroa ez zenbatzea onartzeko.

f) Sailak ez dio ez zenbatzea onartuko ikastaro amaieran dagokion maila edo hizkuntza-eskakizuna gainditu duen inori, nahiz eta ez zenbatua izateko eskakizun guztiak bete.

4.– Gehieneko liberazio-aldiaren ondorioetarako ikastaroa ez zenbatzeak berarekin dakar hurrengo ikasturtean liberatua izateko lehentasuna galtzea.

22. artikulua.– HABEk izendatutako ikasketa-elkarteetan emandako ikastaroetan matrikulatzea.

1.– Jarraian adierazitakoaren arabera egingo dute matrikula ikasketa-elkarte batean emango diren ikastaroetan plaza eskuratu dutenek:

a) Hautatutako ikastaroaren arabera, plaza lortu dutenek <https://www.hezigunea.euskadi.eus> web-orrian izango dute eskura ikasketa-elkarteen zerrenda, bertatik aukeratu ahal izateko.

b) Plaza esleitu zaienei matrikula-fitxa bana bidaliko die Hezkuntza Sailak, esleipendunak, bidalketa horretan zehazten den epean, matrikula egin dezan ikasketa-elkartean. Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko dira datak:

Udako ikastaroetarako fitxa bidaltzea.

Ikasturtean zehar egiteko ikastaroetarako fitxa bidaltzea.

c) Pertsona bakoitzak Hezkuntza Sailak emandako matrikula-fitxa aurkeztuko du aukeratutako ikasketa-elkartean. Onartzen badute, ikastetxe horretan matrikulatua geldituko da.

d) Baldin eta esleipendunak, Hezkuntza Sailaren web-orrian zehaztutako bidaltze-datatik bost eguneko epean, matrikula-fitxarik jasotzen ez badu, dagokion Hezkuntzako Ordezkaritzako Eus-kara Atalera jo beharko du.

23. artikulua.– Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira. Irakasleen prestakuntza.

– Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

– Helburua: Irakasleen prestakuntzarako jarduerak. Irakasleen hizkuntza-gaikuntza, Irale programa. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana (Prest Gara Plana). Jardueren jarraipena.

– Legitimazioa:

• Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

– Hartzaileak:

• Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

• Euskaltegiak, buletina, HABE.

– Eskubideak: eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

– Informazio gehigarria: gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050300-cap2-eu.shtml>

Araudia:

• Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf))

• 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. ([https://www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

## AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertzeke errekurtsioa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

## AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek EHAA n argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko apirilaren 3a.

Hezkuntzako sailburua,  
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## I. ERANSKINA

## PARTAIDEAK ETA IKASTAROAK

HARTZAILEAK	LANORDUETAKO IKASTAROAK								
	U2	U3	3000	4000	5000	R300	R400	R600	R900
Ikastetxe publikoetako irakasle funtzionario eta finkoak	X	X	X		X	X	X	X	X
Ikastetxe publikoetako bitarteko irakasleak	X	X	X		X	X	X	X	X
Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak		X				X	X	X	X
Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaile finkoak	X	X	X	X	X	X			
Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun aldi baterako langileak	X	X	X	X	X	X			

HARTZAILEAK	A (AU)	E (EU)
Ikastetxe publikoetako irakasle funtzionarioak, finkoak, bitartekoak eta aldi baterakoak	X	X
Ikastetxe pribatuetako irakasle finkoak eta aldi baterakoak	X	X
Ikastetxe publikoetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaile finkoak eta aldi batekoak	X	X
Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile finkoak eta ez-finkoak	X	X
Ikastetxe pribatuetako Hezkuntza Bereziko lan-kontratudun hezitzaileak eta 0-3 bitarteko haurren irakasle eta hezitzaileak.	X	X

## II. ERANSKINA

## IKASTAROAK ETA HAIEN EZAUGARRIAK

## LANORDUETAKO IKASTAROAK

Oharra: apartatu honetan jasotako ikastaroen egutegia edo datak aldatuz gero, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da ([www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara](http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara)).

1.HE, 2.HE eta HLEA eskuratzeko ikastaro trinkoak				
Izena	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>U2</u>	1.HE lortzeko urte osoko ikastaroa	2023-09-07tik 2024-06-06ra	Goizez (5 ordu)	850
<u>U3</u>	2.HE lortzeko urte osoko ikastaroa	2023-09-07tik 2024-06-06ra	Goizez (5 ordu)	850
<u>3000</u>	1.HE lortzeko urte erdiko ikastaroa	2024-01-08tik 2024-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475
<u>4000</u>	HLEA lortzeko urte erdiko ikastaroa	2024-01-08tik 2024-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475
<u>5000</u>	2.HE lortzeko urte erdiko ikastaroa	2024-01-08tik 2024-06-06ra	Goizez (5 ordu)	475

Oharra:

1.HE eta 2.HE lortzeko liberazio-aukerak agortuta dituztenek eskola-orduz kanpo presta ditzake hizkuntza-eskakizunetarako azterketak.

Ikastaro hauen egutegia eta ordutegia euskaltegiek zehaztuko dituzte; ikasleen ordutegi eta egutegiak, beraz, horiexek izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroak				
Izena	Definizioa	Egutegia	Ordutegia	Eskola-orduak
<u>R300</u>	Euskarazko komunikazio-kompetentzia sendotzeko ikastaroa, irakasle eta hezitzaileentzat	1. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2023-09-07tik 2023-12-22ra 2. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2024-01-08tik 2024-03-22ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R400</u>	Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa	2023-09-07tik 2023-12-22ra (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)	Goizez (5 ordu)	365
<u>R600</u>	Curriculumaren euskal dimentsioa irakaskuntza-arloetan lantzeko ikastaroa	1. txanda: (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon) 2023-09-07tik 2023-12-22ra 2. txanda: (Donostian eta Bilbon) 2024-01-08tik 2024-03-22ra	Goizez (5 ordu)	365
<u>R900</u>	Euskarazko ahozko komunikazioa irakaskuntza-jardunean	2024-01-08tik 2024-03-22ra (Donostian, Eibarren, Gasteizen eta Bilbon)	Goizez (5 ordu)	365

**Oharrak:**

Tauletan adierazitako eskola-orduak gutxi gorabeherakoak dira.

Ikastaro horietan guztietan parte hartzeko, irakasleen ordezkotzak bermatuta egon behar du.

R ikastaroen egutegia eta ordutegia Iraleko irakastegi bakoitzak zehaztuko ditu; ikasleen ordutegi eta egutegiak, beraz, horietan izango dira, eta ez haien ikastetxeetakoak.

R ikastaroen ikasleek, Iraleko irakastegian dauden bitartean, ez dute baimenik izango irakastegiko jardunez besteko eginkizunetan parte hartzeko (eskola-orduen barneko bestelako ikastaroetan, ikasketa-bidaietan...).

**LANORDUZ KANPOKO IKASTAROAK**

Oharra: apartatu honetan jasotako ikastaroen egutegia edo datak aldatuz gero, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da ([www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara](http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara))

2.HE, C1 EDO HIZKUNTZA-KONPETENTZIAREN ZIURTAGIRI BALIOKIDE BATERA ARTEKO IKASTAROAK		
Izena	Azalpena	Noiz
A (AU)	1.HE arteko ikastaroak	Uztailean (AU)
		Abuztuan (AU)
		Irailean (AU)
		Ikasturtean zehar (A)
E (EU)	1.HEtik 2.HE edo C1 arteko ikastaroak	Uztailean (EU)
		Abuztuan (EU)
		Irailean (EU)
		Ikasturtean zehar (E)

## III. ERANSKINA

## SARRERA-AZTERKETEN DATAK ETA LEKUAK

## U2 ikastaroa egiteko

Oharra: azterketa hau egiteko eguna aldatuz gero, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da ([www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara](http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara))

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
Bilbao	2023-05-25	Dolaretzeko Irale Dolaretxe auzoa, 9. txaleta	16:00
Donostia	2023-05-25	Donostiako Irale Larratxo pasealekua 51-53	16:00
Gasteiz	2023-05-25	Gasteizko Irale Habana kalea z/g	16:00

## 3000 ikastaroa egiteko

Oharra: azterketa hau egiteko eguna aldatuz gero, Hezkuntza Sailaren web-orrian argitaratuko da ([www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara](http://www.euskadi.eus/hezkuntza-euskara))

TOKIA	EGUNA	HELBIDEA	ORDUA
Bilbao	2023-09-19	Dolaretzeko Irale Dolaretxe auzoa, 9. txaleta	16:00
Donostia	2023-09-19	Donostiako Irale Larratxo pasealekua 51-53	16:00
Gasteiz	2023-09-19	Gasteizko Irale Habana kalea z/g	16:00

## IV. ERANSKINA

## R300: EUSKARAZKO KOMUNIKAZIO-KONPETENTZIAN HOBETZEKOAK

Izen-abizenak: 

Zein ikasturtetan hasi zinen euskaraz irakasten? \_\_\_\_\_

Irakaskuntzan azken urteotan egin duzun ibilbidea ezagutzera emateko, bete taula hau: <sup>1</sup>

Zein urtetatik zein urtetara	Herria	Ikastetxea	Arloa	Maila	Eredua

Azken urteetan, zer prestakuntza izan duzu berariaz euskarazko komunikazio-kompetentzian?

Urtea	Ikastaroaren edo mintegiaren izena	Antolatzailea edo irakaslea	Ordu-kopurua

Lanean euskaraz ari zarela, zer hutsune edo behar nabaritzen dituzu? Ahalik eta gehien zehaztu.

1. Ahozko komunikazioan

2. Idazmenean

3. Irakurmenean

4. Entzumenean

5. Hizkuntzaren zuzentasunean

<sup>1</sup> Behar beste lerro erantsi taulan.

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## V. ERANSKINA

## IKASTETXEKO ZUZENDARITZAK BETE BEHARREKO ADIERAZPENA

R400: Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa

Agiri honen bidez, nik, ..... ikastetxeko zuzendari  
.....-(e)k, honako hau adierazten dut:

Gure ikastetxeko irakaslea den .....-(e)k «R400: Euskarazko ikasmaterialak sortzen trebatzeko ikastaroa» egin nahi duela 2023-2024 ikasturtean. Ikastaro hori egiteak gure ikastetxearen premiei erantzuten die, eta ikastaroa bat dator ikastetxeko hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuarekin.

Eta jasota gera dadin, hau sinatzen dut.

.....(e)n, 2023ko .....ren .....(e)(a)n.

Sinadura

Ikastegiaren zigilua

## VI. ERANSKINA

## IKASTETXEKO ZUZENDARITZAK BETE BEHARREKO ADIERAZPENA

R600: Curriculumaren euskal dimentsioa irakaskuntza-arloetan lantzeko ikastaroa

Agiri honen bidez, nik, ..... ikastetxeko zuzendari  
.....-(e)k, honako hau adierazten dut:

Gure ikastetxeko irakaslea den ..... -(e)k «R600: Curriculumaren euskal dimentsioa irakaskuntza-arloetan lantzeko ikastaroa» egin nahi duela 2023-2024 ikasturtean. Ikastaro hori egiteak gure ikastetxearen premiei erantzuten die, eta ikastaroa bat dator ikastetxeko hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuarekin.

Eta jasota gera dadin, hau sinatzen dut.

.....(e)n, 2023ko .....ren .....(e)(a)n.

Sinadura

Ikastegiaren zigilua

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## VII. ERANSKINA

## IKASTETXEKO ZUZENDARITZAK BETE BEHARREKO ADIERAZPENA

R900: Euskarazko ahozko komunikazioa irakaskuntza-jardunean

Agiri honen bidez, nik, ..... ikastetxeko zuzendari  
.....-(e)k, honako hau adierazten dut:

Gure ikastetxeko irakaslea den .....-(e)k «R900: Euskarazko ahozko komunikazioa irakaskuntza-jardunean» izeneko ikastaroa egin nahi duela 2023-2024 ikasturtean. Ikastaro hori egiteak gure ikastetxearen premiei erantzuten die, eta ikastaroa bat dator ikastetxeko hezkuntza- eta hizkuntza-proiektuarekin.

Eta jasota gera dadin, hau sinatzen dut.

.....(e)n, 2023ko .....ren .....(e)(a)n.

Sinadura

Ikastegiaren zigilua

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## VIII. ERANSKINA / ANEXO VIII

## ESKABIDE-ORRIA / HOJA DE SOLICITUD

2023ko udarako eta 2023-2024 ikasturterako deialdia  
Convocatoria para el verano de 2023 y curso 2023-2024

## 1. DATU PERTSONALAK / DATOS PERSONALES

NAN / DNI	1. abizena / 1 <sup>er</sup> apellido	2. abizena / 2. <sup>o</sup> apellido
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Izena / Nombre	Bizilekua: kalea eta zenbakia / Domicilio: calle y número	
<input type="text"/>	<input type="text"/>	
Udalerría / Municipio	Posta-kodea / Código postal	Telefonoak: etxekoa/sakelekoa Teléfonos: domicilio/móvil
<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
Helbide elektronikoa / e-mail		
<input type="text"/>		

## 2. LANEKO DATUAK / DATOS LABORALES

Lanbide-egoera Relación laboral	Egiatzatutako hizkuntza-eskakizuna Perfil lingüístico acreditado
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Ikastetxearen izena / Nombre del centro escolar	Ikastetxearen udalerría / Municipio del centro
<input type="text"/>	<input type="text"/>
Publikoa/Público <input type="checkbox"/>	Pribatua/Privado <input type="checkbox"/>

## 3. IKASTARO HAU(EK) EGIN NAHI D(IT)UT / DESEO CURSAR

## 2.HE ARTEKO IKASTAROAK / CURSOS HASTA PL2

Eskola-orduz kanpoko ikastaroak Cursos fuera del horario lectivo	Ikastaroa Curso	Lurralde H. Territorio H.
2023ko udan / Verano de 2023 (AU / EU)		
2023-2024 ikasturtean / Curso 2023-2024 (A / E)		

2023ko apirilaren 18a, asteartea

Eskola-ordu barneko ikastaroak <i>Cursos dentro del horario lectivo</i>	Ikastaroa Curso	Lurralde H. Territorio H.
Urte erdiko ikastaroak / <i>Cursos de medio año</i> (3000 / 4000 / 5000)		
Urte osoko ikastaroak / <i>Cursos de todo el año</i> (U2 / U3)		

## 2.HE, C1 EDO BALIOKIDEREN BATETIK GORAKO IKASTARO TRINKOAK

*CURSOS INTENSIVOS SUPERIORES A PL2, C1 O EQUIVALENTE*

2023-2024an eskola- ordu barnean <i>Dentro del horario lectivo en 2023-2024</i>		Ikastaro- kodea <i>Código de curso</i>	Eskualde-kodea <i>Código de zona</i>	Eskabide- zenbakia <i>Número de solicitud</i>	Ikastaro- kodea <i>Código de curso</i>	Eskualde-kodea <i>Código de zona</i>
R300 / R400 / R600 / R900	1			4		
	2			5		
	3			6		

Oharrak/*Observaciones:*

. R300 ikastaroa eskatzeko, ezinbestekoa da galdetegi bat eranstea (deialdiaren IV. eranskina), komunikazio-kompetentzien zer eremu hobetu nahi dituzun adierazteko.

. *Para solicitar el curso R300 es necesario adjuntar un cuestionario (Anexo IV de la Convocatoria) que indique qué ámbitos de competencia comunicativa desea mejorar.*

. R400, R600 eta R900 ikastaroak eskatzeko, ezinbestekoa da dagokion ikastetxeak bete beharreko dokumentu bat eranstea (deialdiaren V., VI. eta VII. eranskinak).

*Dokumentu horren bidez, ikastetxeek adieraziko dute ikastaro hori egiteak ikastetxearen premiei erantzuten diela, eta ikastaroa bat datorrela hezkuntza-proiektuarekin eta hizkuntza-proiektuarekin.*

. Para solicitar los cursos R400, R600 y R900 es necesario adjuntar un documento a cumplimentar por el centro correspondiente (anexos V, VI y VII de la convocatoria).

*A través de este documento, los centros indicarán que trabajar en estos cursos responde a las necesidades del centro y se ajusta al proyecto educativo y al proyecto lingüístico.*

2023ko apirilaren 18a, asteartea

## 4. IRAKASLE BATEK U2, U3, 3000, 4000, 5000 EDO R ESKATU DUENEAN BETE BEHARREKOA

A RELLENAR CUANDO UN(A) PROFESOR(A) SOLICITA U2, U3, 3000, 4000, 5000 O R

Badut nire ikastetxeko zuzendariaren baimena, aukeratu d(it)udan ikastaroa(k) eskatzeko. <input type="checkbox"/>	Ei/La solicitante cuenta con la aprobación del director/a del centro para realizar los cursos solicitados. <input type="checkbox"/>
---	---

## 5. IRAKASLE BATEK R400 ESKATU DUENEAN BETE BEHARREKOA

A RELLENAR CUANDO UN(A) PROFESOR(A) SOLICITA R400

<input type="checkbox"/> Konpromisoa hartzen dut ikastaroa amaitu baino lehen bertan sortutako ikasmateriala EIMARA bidaltzeko, egokitasuna onesteko, esteka honen bitartez:  <a href="https://www.euskadi.eus/eima-euskal-ikasmaterialen-kalitatea/web01-a2heusk/eu/">https://www.euskadi.eus/eima-euskal-ikasmaterialen-kalitatea/web01-a2heusk/eu/</a>	<input type="checkbox"/> Ei/La solicitante se compromete a enviar a EIMA (valoración de la idoneidad) el material creado durante el curso, antes de la finalización del mismo, a través del siguiente enlace:  <a href="https://www.euskadi.eus/eima-euskal-ikasmaterialen-kalitatea/web01-a2heusk/eu/">https://www.euskadi.eus/eima-euskal-ikasmaterialen-kalitatea/web01-a2heusk/eu/</a>
---	--

## 6. ESKATZAILEAREN ADOSTASUN-AGIRIA / CONFORMIDAD DEL (DE LA) SOLICITANTE

Eman ditudan datuak egiazkoak direla aitortzen dut. <input type="checkbox"/>	Declaro que los datos que apporto son verdaderos <input type="checkbox"/>
--	---

2023ko apirilaren 18a, asteartea

Datuen babesari buruzko informazio oinarrikoa

Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira. Irakasleen prestakuntza.

Arduraduna: Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zuzendaritza, Hezkuntza Saila

Helburua: Irakasleen prestakuntzarako jarduerak. Irakasleen hizkuntza-gaikuntza, IRALE programa. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana (Prest Gara Plana). Jardueren jarraipena.

Legitimazioa: Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean

Hartzaileak: Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk. Euskaltegiak, buletina, HABE

Eskubideak: Eskubidea duzu datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

Informazio gehigarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua: [www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050300-cap2-eu.shtml](http://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/050300-cap2-eu.shtml)

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra ([www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa\\_dpd/eu\\_def/adjuntos/RGPD-2016\\_0679\\_eu.pdf](http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf)).

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa. ([www.boe.es/boe\\_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf](http://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf))

#### *Información básica sobre protección de datos*

*Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Formación profesorado.*

*Responsable: Dirección de Aprendizaje e Innovación Educativa, Departamento de Educación*

*Finalidad: Actividades de formación del profesorado. Capacitación idiomática del profesorado, programa IRALE. Participación de actividades de perfeccionamiento del profesorado no universitario de la CAPV en las actividades de formación (Plan Prest Gara). Seguimiento de las actividades.*

*Legitimación: Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.*

*Destinatarios: Otros órganos de la Comunidad Autónoma. Euskaltegis, boletín, HABE*

*Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.*

*Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: [www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/050300-cap2-es.shtml](http://www.euskadi.eus/clausulas-informativas/web01-sedepd/es/transparencia/050300-cap2-es.shtml)*

*Normativa: Reglamento General de Protección de Datos*

*([eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES](http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES))*

*Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales ([www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673](http://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673))*

Eskatzailearen sinadura / Firma del solicitante

Data eta tokia / Fecha y lugar